

# Asisko gutuna

2009ko ekaina. 4. printzipioa: Bidea elkarrekin egin,

anaitasunez bizi.

8. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hil honetan Asis sareko laugarren printzipiora gatoz berriro: "Bidea elkarrekin egin, senidetasunean bizi". Begirada gure eguneroko harremanetara bihurtzera, geure zailtasunen eta lorpenen kontzientzia hartzera, egiten zaigu gonbitea. Dena eta denak Jesusen begiradatik ikustera gonbidatuak

gaude. Hau geure eguneroko bizitzan praktikan jartzen saiatzeaz gain, Asis Saretik senidetasun hau bizitzen lagun diezaguketen bi elementu nagusi eskaintzen ditugu: hileroko Gutun hau eskuratu Sarean esku hartuz, eta betiko bizilekuetan hileroko otoitz-aldian partaide izan.

## Gogoetarako gaia

### Etsaiak maitatu?

Gutun honetan biltzen diren Ebanjeliotik hartutako hitzak, eskandaluzkoak gertatzen zaizkigu: etsaiak maitatu? Ia-ia guretarrak maite ahal izatearekin kontentatuko ginatete, eta horretarako ere ez gara gauza! Zertaz ari da Jesus hau? Alde batetik, hitzok absurduak eta ezinezkoak iruditzen zaizkigu, baina bestetik badute erakartzen gaituen zerbait. Gure bihotzetik, gure desioetatik, hurbil dagoen zerbait esaten dute; barnean dugun alderik onenaz ari zaigu.

Aski izango genuke geure familia, geure ezkontidea, geure seme-alabak maite izatearekin, geure lagunen premiekin arretaz jokatzearekin, geure lankideekin harreman maitekorrak izatearekin... eta horra ere ez gara iristen. Nor da, etsaiak ere maitatzera eragiten digun hau?

Kristo, porrot osoan Gurutzean hiltzear, gauza izan zen hitzok egiazko bihurtzeko, bere hiltzaileei barkatuz

eta haientzat barkamena eskatuz. Hark lehenengo maitatu gintuen. Ebanjelioaren muinean, beti hasiera berria eskaintzen digun Jainkoarekin egiten dugu topo; eskatzen digun maitasuna emana digu aurretik, gure maitasunezko erantzunari oinarri emateko.

Jesusekin erabat maiteminduriko san Frantziskok, on gorena deitzen dio Hari. Jainkoaz duen esperientziak ahalmena ematen dio etsaiak maitatzeko, eta legenardunak, eta traizio egiten dioten anaiak, sorkari guztiak. Dena senide egiten du bere bizitzan.

Hitz horiek arraroak egiten zaizkigu, baina zabaldu egiten dute gure bihotza. Joan gaitzke, Jainkoaren misterio hauetara isil eta apalik hurbiltzen. Agian egunen batea gauza izango gara geure etsaiak maitatzeko. Horrelakorik gertatzen bazaigu, asko eskertu beharrean izango gara.

Eta bien bitartean, eskerrak eman beharrean gara, euria zuzen eta gaizto garenon gainera datorrelako.

## Ebanjelioko pasartea: Mt 5, 43-47

«Badakizue legean agindua: Maitatu lagun hurkoa eta gorrotatu etsaia. Nik, berriz, hau diotsuet: Maitatu etsaiak eta egin otoitz pertsegitzen zaituztetenen alde; horrela, zeruko zeuen Aitaren egiazko seme-alaba izango zarete, hark zintzoentzat eta gaiztoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta

zuzengabeentzat isurtzen euria. 46 Izan ere, maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? 47 Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten?

## San Frantziskoren testua: *Ministro bati Gutuna* testutik aterata

Honako honetan ezagutu nahi dut Jauna maite duzula eta baita ni ere haren eta zure morroi hau, honela jokatzeko baduzu, alegia: ez dadila izan munduan anaiarik, daitekeen bekatu gehien egin balu ere, zure begiak ikusi ondoren, inoiz zure errukirik gabe alde egingo duenik, errukia eskatuko balu. Eta errukia eskatuko ez balu, galdetu zeuk errukirik nahi duen. Eta beste mila aldiz zeure begi aurrean bekatu egingo balu ere, maita ezazu ni neu baino gehiago, horrela Jaunarengana, erakar dezazun; eta izan erruki beti horrelakoak. Eta haren bekatuaren berri dakiten anaiek ez bezate lotsaraz, ez hartaz gaizki esan, baizik eta erruki handia izan biezaiote eta beren ansiaren bekatua isil-isilean gorde bezate, zeren ez baitute osasundunek behar sendagilea, gaixok baizik.

## Anaitasun-otoitza

Jesus Jauna,  
Bidal iezaguzu egunero  
zure Espiritua.  
Berekoikeriak eta harrotasunak  
eraikitako horma banatzaileak suntsitu.

Tirabirak sortzen dituzten  
bekaizkeriek gure etxetik urrundu.  
Inhizizioetatik atera.  
Bihozkadak lasaitu  
eta lasaitasunez bete.

Korrente sentikorrak  
eta beroak sortarazi  
geure barnean,  
elkarri ulertzeko eta barkatzeko.

Blokeoak apurtu  
Batzuk besteekin  
irekiak eta leialak,  
egiazkoak eta egiazaleak izan gaitezen.

Konfiantza, zuhaitz hostotsu bezala  
hazi dadila.  
Horrela, mundu aurrean,  
zu, Jauna, gure artean bizirik zaudelaren  
argudio sentikorra  
eta profetikoa izango gara.

(Jatorrizkoa: I. Larrañaga)

## Gutuneko azken hitzak

Maita ezazu eta egizu nahi duzuna. Isiltzen bazara, egizu maitasunez; oihi egiten baduzu, egizu maitasunez; inor zuzentzen baduzu, zuzen ezazu maitasunez; barkatzen baduzu, barka ezazu maitasunez (San Agustin).

## 2009ko uztaileko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate uztaileko erreferentzia guztiak:

1 Mt 8,28-34	8 Mt 10,1-7	15 Mt 11,25-27	22 Jn 20,1.11-18	29 Mt 13,44-46
2 Mt 9,1-8	9 Mt 10,7-15	16 Mt 11,28-30	23 Mt 13,10-17	30 Mt 13,47-53
3 Jn 20,24-29	10 Mt 10,16-23	17 Mt 12,1-8	24 Mt 13,18-23	31 Mt 13,54-58
4 Mt 9,14-17	11 Mt 10,24-33	18 Mt 12, 14-21	25 Mt 20,20-28	
5 Mk 6,1-6	12 Mk 6,7-13	19 Mk 6,30-34	26 Jn 6,1-15	
6 Mt 9,18-26	13 Mt 10,34-11,1	20 Mt 12,38-42	27 Mt 13,31-35	
7 Mt 9,32-38	14 Mt 11,20-24	21 Mt 12,46-50	28 Mt 13,36-43	

### Oharrak:

Asis Sarearen ezaugarri nagusia da irekia izan nahi duela eta bere asmoa biderkatzea. Irekitasun hau sarean parte hartzen dugun bakoitzari egitea dagokigu. Guztiok biderka dezakegu Asis Sarea, hileroko Gutun hau jasotzera edo hileroko azken ostegunetan 19.30ean, ohiko lekuetan, ospatzen dugun otoitzaldian parte hartzera nor gonbida dezakegun pentsatuz.

Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua [asissarea@arantzazu.org](mailto:asissarea@arantzazu.org) helbide elektronikora.